onuragarriak ziren proiektuak onartu zirela, baina foro sozialetan adierazi dela akordio horiek lortu direla beste talde politiko batek presoen senideentzako diru-laguntzak eman ez daitezela lortzearen truke.

Ibon Rodríguezek onartu du Plan Estrategikoak ez duela behartzen laguntzen deialdia egitera, nahiz eta plana gobernu-taldeak aurkeztu duen. Plan Estrategiko horretako aurreikuspena bete dadin ekarri dute Osoko Bilkurara mozioa. Bere egiten du Koldo Iturberen proposamena, akordioak lortuz gero diru laguntzak mantentzeko, baina uste du inposizio bat dagoela laguntza horiek eman ez daitezkeen.

Koldo Iturbek EH Bilduri seinatu dio beraiek abstenitu zirela Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onetsi zenean.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onartu, aldeko 4 boto jaso dituelako (EH Bildu), 17 boto kontra (EAJ, PP, PSE-EE eta Ciudadanos), eta 4 abstentzio (GUK).

132.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: DIRU SARRERAK BERMATZEKO EERRENTA PRESTAZIOAREN EZDABAIDA.

Nerea Guijarrubiak adierazi du mozioa kendu dutela, aurreko puntu batean eztabaidatu da eta.

133.- CIUDADANOS UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: BIGARREN AUKERA.

proyectos favorables para el municipio pero en foros sociales se ha indicado que esos acuerdos son a cambio del logro de otro grupo político de evitar las ayudas a los familiares de presos.

Ibon Rodríguez reconoce que el Plan Estratégico no obliga a convocar las ayudas aunque dicho plan ha sido presentado por el equipo de gobierno. Plantean al Pleno la moción para que se cumpla la previsión de dicho Plan Estratégico. Asume la propuesta de Koldo Iturbe que si se llegan a acuerdos se pueden mantener las ayudas pero cree que existe una imposición para evitar dichas ayudas.

Koldo Iturbe indica a EH Bildu que se abstuvieron en la aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 17 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, GUK.

132.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/DEBATE SOBRE LA PRESTACIÓN DE LA RENTA DE GARANTÍA DE INGRESOS.

Nerea Guijarrubia manifiesta que retiran la moción dado que ha sido objeto de debate en un punto anterior.

133.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/LA SEGUNDA OPORTUNIDAD.

Santiago Sainzek ondorengo mozioa irakurri du:

2008tik, Espainiak bere historia demokratiko osoko krisi ekonomiko okerrenari egin behar izan dio aurre. 8 urte geroago, 2016an, alegia, ekonomia hazten ari bada ere, gure herrialdeak oraindik ez ditu berreskuratu krisiaren aurreko mailak, enpleguari dagokionez.

Krisiak enpleguaren gainean izan duen eragin handiak zerikusi handia dauka milaka enplegatzaile desagertu izanarekin. 2008 eta 2014 bitartean, 302.929 enpresa desagertu ziren Espainian; horietatik 283.202 pertsona fisikoak edo langile autonomoak ziren. 2016an ere oraindik asko falta zaigu krisiaren aurreko mailak berreskuratzeko; izan ere, 185.657 enpresa desagertu dira, horietatik 176.093 langile autonomoak zirela. Merkatutik irten ziren autonomo guztietatik, % 98 10 langile baino gutxiago zituzten enpresak ziren.

BBVA Fundazioaren datuen arabera, urtebeteko antzinasuna duten eta soldatapekorik ez duten enpresen biziraupen-tasa % 75 da, gutxi gorabehera; beste herrialde batzuetan (adibidez, Erresuma Batuan) ia % 90 da. Horrek badakar, gure herrialdean enpresak sortzeko bolumen handia egon arren, porrot egiteko aukera oso handia izatea, batez ere enpresa gazteen, ekintzaileen eta mikroenpresen artean.

Hala ere, estatistika ofizialek erakusten dute 2009an ere –urte horretan konkurtso-prozedurak % 187 handitu ziren– konkurtso-prozedura formalak izan zituzten enpresen kopurua 10.000tik beherakoa izan zela beti.

Santiago Sainz da lectura a la siguiente moción:

Desde 2008, España ha tenido que enfrentarse a la peor crisis económica de toda su historia democrática. 8 años después, en 2016, pese a que la economía se encuentra en crecimiento, nuestro país aún no ha recuperado los niveles previos a la crisis en términos de empleo.

El fuerte impacto de la crisis sobre el empleo tiene mucho que ver con la desaparición de miles de empleadores. Entre 2008 y 2014, se destruyeron en España 302.929 empresas, de las cuales 283.202 eran personas físicas o autónomos. Todavía en 2016, estamos lejos de recuperar niveles pre-crisis, con una pérdida de 185.657 empresas, de las cuales 176.093 son autónomos. Del total de autónomos que salieron del mercado, el 98% han sido empresas de menos de 10 trabajadores.

Según datos de la Fundación BBVA, la tasa de supervivencia de las empresas sin asalariados con 1 año de antigüedad es de alrededor del 75%, mientras que en países como el Reino Unido es de casi el 90%. Eso supone que, pese al elevado volumen de creación de empresas en nuestro país, la probabilidad de quiebra es muy elevada, especialmente entre empresas jóvenes, emprendedores y microempresas.

Sin embargo, las estadísticas oficiales muestran que, incluso en 2009, cuando los procedimientos concursales aumentaron en España en un 187%, el número de empresas que registraron procedimientos concursales formales

Gainera, kasu horietako 19tan baino ez zen akordioa lortu zordunekin. Horrek esan nahi du Espainian kasuen ia % 100ean porrot egoerak enpresaren likidazioa dakarrela.

Hori oso larria da autonomoen kasuan, beren zorrei erantzuten baitiete beren ondare eta diru-sarrera guztiak (oraingoak zein etorkizunekoak) erabiliz. Kasu gehienetan horrek berriro ere jarduera bati ekitea eta bigarren aukera bat izatea galarazten die. Gertaera horiek seinale baten moduan uler litezke erraz: Espainiako porrot prozedurek ez dute behar bezala funtzionatzen, eta ez dira egokitzen zirkunstantzietara eta beharizanetara, bereziki autonomoei eta mikroenpresei begira.

Nazioarteko esperientziak argi uzten digu ezinbestekoa dela ondo diseinatutako kaudimengabeziako erregimen bat egotea, oraindik bideragarriak diren enpresei salbatzen laguntzeko eta bideraezinak direnak merkatutik azkar irtenarazteko. Kaudimengabeziari buruzko lege on batek merkatuan jarduten duten eragileen artean banatu behar du arriskua, aurreikus daitekeena, bidezkoa eta gardena den moduan. Horrek, kreditu-sistema indartzen ez ezik, hazkunde ekonomikoa sustatzen ere laguntzen du, guztien onerako.

Kaudimengabezia pertsonaleko erregimenen helburua banakako zordunak birgaitzen laguntzea da, arrazoizko denbora igaro eta betekizun zehatz batzuk bete ondoren, jarduera ekonomikoari baldintza egokietan berriro ekitea ahalbidetuta. Eta

estuvo siempre por debajo de las 10.000. Además, sólo en 19 de estos casos se alcanzó un acuerdo con los acreedores. Esto significa que en España el estado de quiebra termina casi en el 100% de los casos en la liquidación de la empresa.

Esto resulta especialmente grave en el caso de los autónomos, que responden a sus deudas con todo su patrimonio y sus ingresos (presentes y futuros), impidiendo en la mayoría de los casos que puedan reemprender una actividad de nuevo y tener una segunda oportunidad. Estos hechos podrían entenderse fácilmente como una señal de que los procedimientos de quiebra en España hoy en día no funcionan correctamente y no se adaptan a las circunstancias y necesidades de las empresas en dificultades, especialmente para los autónomos y microempresas.

La experiencia internacional nos muestra que la existencia de un régimen de insolvencia bien diseñado es imprescindible para ayudar a salvar a aquellas empresas que aún son viables y para hacer salir del mercado rápidamente a las que no lo son. Una buena ley de insolvencia debe repartir el riesgo entre los agentes que operan en el mercado de una forma previsible, equitativa y transparente. Esto no solo contribuye a fortalecer el sistema crediticio, sino que además ayuda a impulsar el crecimiento económico, en beneficio de todos.

Los regímenes de insolvencia personal tienen como objetivo ayudar a rehabilitar a los deudores individuales pasado un tiempo razonable y tras el cumplimiento de ciertos requisitos, permitiéndoles volver en condiciones adecuadas a la actividad económica, y

herrialde garatuetako sistema juridiko guztiek zorra askatzeko mekanismo jakin batzuk aurreikusten dituzte.

Kaudimengabeziako erregimen bat eraginkorra ala ez izatea eta ondo diseinatuta egotea neurri handian erakunde esparru egokia egotearen baldintzapean dago. Horregatik, ez gintuzke harritu beharko nazioarteko erakundeek (adibidez, Nazioarteko Diru Funtza - NDF) adorez eta etengabe harrarazten dizkiguten erreformatako bat kaudimengabezia pertsonaleko lege-erregimenarena izateak, bereziki autonomoi, profesionalei eta banakako enpresaburuei dagokienez.

Hala ere, Espainia oso berandu ibili da mekanismo horiek, gainera funtsezko aurrerapenak behar dituztenak, garatzeko orduan. 2015ean onetsitako Bigarren Aukerari buruzko Legean, nahiz eta prozedura sinplifikatu eta judizioz kanpoko akordioak epaiketara joan aurreko ia beharrezko betekizuntzat jo, bitartekotzaren eta judizioz kanpoko akordioaren prozedurak garestiagoa izaten jarraitzen du autonomo eta enpresa txikientzat. Horrez gain, akordio horietatik kanpo uzten ditu kreditu publikoak (Ogasuna eta Gizarte Segurantzza), oro har pertsona horiei eragiten dieten zor nagusiak badira ere. Beraz, konkurtso-prozedurak ez dira erakargarriak eta nahiko alferrekoak dira zailtasunak dituzten autonomoen eta mikroenpresen berariazko zirkunstantziei erantzuteko.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Ciudadanos taldeak honako hau aurkeztu du:

ERABAKI PROPOSAMENA:

todos los sistemas jurídicos de los países desarrollados prevén ciertos mecanismos de liberación de deuda.

El que un régimen de insolvencia sea o no efectivo y esté bien diseñado depende en gran medida de la existencia de un marco institucional adecuado. Por ello, no debería sorprendernos de que una de las reformas a cuya adopción nos impulsan enérgica e insistentemente organismos internacionales como el Fondo Monetario Internacional (FMI) sea la del régimen legal de la insolvencia personal, especialmente en el caso de autónomos, profesionales y empresarios individuales.

Sin embargo, España ha llegado muy tarde al desarrollo de estos mecanismos, que además requieren de avances sustanciales. En la Ley de segunda oportunidad aprobada en el año 2015, aunque se simplificaba el procedimiento y se establecían los acuerdos extrajudiciales casi como un requisito necesario antes de ir a juicio, el procedimiento de mediación y acuerdo extrajudicial sigue siendo excesivamente costoso para autónomos y pequeñas empresas y además excluye de dichos acuerdos los créditos públicos (Hacienda y Seguridad Social), cuando generalmente son las principales deudas que les afectan. Por tanto, los procedimientos concursales resultan poco atractivos e inútiles para responder a las circunstancias específicas de autónomos y microempresas en dificultades.

Teniendo presente todo lo anterior, el Grupo de Ciudadanos presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

Getxoko Udalaren Osoko Bilkurak Espainiako eta autonomia-erkidegoko Gobernuari eta Foru Aldundiei eskatu nahi die honako neurri hauek har ditzaten, ekintzaileentzat eta autonomoentzat benetako "bigarren aukera" bat bermatze aldera:

1. Enpresa-porrotak saihesteko mekanismo bat abiaraztea sustatzea, Danimarkako "early warning" ereduari jarraituta; eredu horrek aholkularien sare bat dauka, ekintzaile eskarmentudunek osatutakoa, eta horiek zailtasunak dituzten jardueren autonomoen eta ekintzaileen doako ekonomia- eta finantza-diagnostikoa prestatzeaz, bizirauteko irtenbide onenari buruzko aholkularitza emateaz eta ekintzailetza prozesuan eta berrekintzailetzaranzko orientabidean laguntzeaz arduratuko lirateke.

2. Autonomia-erkidego osoan laguntza-ildo bat ezartzea, norberak nahi izan gabe jarduera uzten denetik 2 urteko gehieneko epean jarduera berri bati ekiten dioten autonomo berrekintzaileen Gizarte Segurantzaren kuotak zati batean estaltzeko. Horrela, autonomoak bere gain hartzen duen kuota 50 eurokoa izango da 12 hilabeteko aldian.

3. Jarduera-uzteagatiko sorospena (JUS), zenbatekoari dagokionez langabeziagatiko sorospenaren baliokidea dena, ezartzea, jarduera-uzteagatiko prestazioaren onuradunak diren autonomo guztiek eskuratu ahaliko dutela 6 hilabeteko aldian, prestazioa amaitu zaien egunetik aurrera zenbatuta.

El Pleno de Getxo insta al Gobierno Español y Autonómico y a las Diputaciones Forales a que adopten las siguientes medidas con el objetivo de garantizar una verdadera "segunda oportunidad" para los emprendedores y autónomos:

1. Impulse la puesta en marcha de un mecanismo de prevención de fracasos empresariales, siguiendo el modelo "early warning" danés, consistente en una red de mentores formada por emprendedores experimentados que se encargarían de elaborar un diagnóstico económico-financiero gratuito de los autónomos y emprendedores cuya actividad se encontrase en dificultades, así como asesorarles en la mejor solución para su supervivencia y acompañarles en el proceso de emprendimiento y en la orientación hacia el reemprendimiento.

2. Que se establezca una línea de ayudas a nivel de toda la Comunidad Autónoma para la cobertura parcial de las cuotas de la Seguridad Social de aquellos autónomos reemprendedores que inicien una nueva actividad en un plazo máximo de 2 años desde la fecha de un cese involuntario de actividad, de modo que la cuota que soporte el autónomo sea de 50 euros durante un periodo de 12 meses.

3. A que se implante un Subsidio por Cese de Actividad (SCA), equivalente en su importe al subsidio por desempleo, al que podrán acceder todos los autónomos beneficiarios de la prestación por cese de actividad por un periodo de 6 meses desde la fecha de agotamiento de la prestación.

4. Bidezko erabakiak hartzea, hartzekodunen konkurto baten ondoren ordaintzeke dauden zorrak ordaintzetik libratzeko onura jasotzen duten langile autonomoak Ogasunarekiko zorrak ordaintzetik automatikoki libratzea xedatzeko.

Eduardo Andradek seinatu du PPK kontrako botoa emango duela, datu zaharretan oinarritu delako mozioa eta zorrotasuna falta zaiolako. Testuan erakunde askori eskatzen zaie, baina Getxoko Udalari ez; hori ez zaie egoki iruditzen, udalean aurkeztu baita mozioa. Adierazi du hurrengo egunean onartuko dela Autonomoen Lege berria, eta horretan jasotzen dela mozioan aurkeztutakoaren zati bat. Jarraian, zerrendatu du zer onura ekarriko dizkien autonomoei lege-testu berriak, zeina sortu baita gobernu zentrala autonomoak ordezkatzeko dituzten elkarteekin negoziatu ostean. Kritikatu du mozioak proposatzea zorrak ordaintzetik libratzea.

Ibon Rodríguezek esan du Ciudadanosek demagogiaren festa ekarri duela Osoko Bilkurara. Azaldu du mozioa irakurri ondoren ez dakitela zer eskatzen den ezta nori ere, mozioak kontuan hartzen ez baitu hainbat administrazio dagoela, zein bere eskumenekin, eta zehazten ez baitu zer eskatzen zaion administrazio bakoitzari. Gogorarazi die garrantzitsua dela eskaerak zehaztea, areago Ciudadanosen kasuan, kontzertu ekonomikoaren kontra baitago. Ciudadanos gogorarazi dio hori PPren gobernuak eskatu duela, eta mozioarekin PPri aukera eman diola azaltzeko zer onurak dakartzkien bere gobernuak autonomoei.

4. Se adopten los acuerdos que procedan para disponer la exoneración automática de las deudas con la Hacienda de los trabajadores autónomos a los que tras un concurso de acreedores se les conceda el beneficio de la exoneración de las deudas pendientes.

Eduardo Andrade indica que el PP va a votar en contra ya que la moción se basa en datos antiguos y con falta de rigor. Insta en el texto a muchas instituciones pero no al Ayuntamiento de Getxo, lo que no les parece correcto para tratarse de una moción presentada en el ayuntamiento. Manifiesta que mañana se va a aprobar una nueva Ley de Autónomos con medidas que recogen parte de lo que se indica en la moción. Pasa a continuación a detallar las mejoras que para los autónomos va a recoger dicho nuevo texto legal, que se ha producido tras la negociación del gobierno central con las asociaciones representativas de los autónomos. Critica que la moción plantea la exoneración del pago de deudas.

Ibon Rodríguez indica que Ciudadanos ha traído al Pleno la fiesta de la demagogia. Manifiesta que leyendo la moción no saben qué se pide ni a quién se pide ya que la moción no tiene en cuenta la existencia de las diferentes administraciones con diferentes competencias, ni concreta qué se plantea a cada administración. Les recuerda que es importante concertar las peticiones y más en el caso de Ciudadanos que están en contra del concierto económico. Recuerda a Ciudadanos que eso lo ha pedido el gobierno del PP y con la moción ha dado la oportunidad al PP de explicar las bonanzas de su gobierno en relación a los autónomos.

Santiago Sainzek seinalatu du mozioa era orokorrean proposatzen dela lurralde guztietan daudelako autonomoak. PPren gobernuak autonomoen lege berri bat onartuko du Ciudadanosekiko itunari esker, eta Andraderi eskertu dio haren ezaugarriak azaldu izana, horrela berak ez ditu orain azaldu behar. Mozioan jasota daude PPK Ciudadanosi autonomoen gaineko itunean onartu ez dizkion proposamenak. Mozioan plazaratu diren proposamenak azaldu ditu, eta jakinarazi du Bizkaiko autonomoen elkarteekin landu direla, eta haiek ondo baloratzen dituztela.

Ibon Rodríguezek adierazi du autonomoen egoera serioa dela, eta seriotasun berberarekin landu behar dela, eta ez datorrela bat mozioaren orokortasunarekin ezta administrazio bakoitzari zer eskatzen zaion eta horrek zer egin dezakeen inguruko zehaztasun ezarekin ere. Mozioa, aurkeztu den moduan, propaganda hutsa da, eta autonomoek seriotasuna eskatzen dute, eta proposamenak eraginkorrak eta egingarriak izan behar dira.

Susana Andollok seinalatu du GUK abstenitu egingo dela, mozioa eskasa baita eta ozta-ozta ekarri baita, eta gainera beren jardueran asko jokatzeko duen kolektibo bati buruzkoa baita. Beraren ustez, ez da hitz egiten ukitutako kolektiboekin, eta haiek arazoetarako irtenbide gehiago eskaini ditzaketela talde politikoek beraiek baino.

Eduardo Andradek seinalatu du Autonomoen Legea Diputatuen Kongresuan izapidetzen ari dela, eta han akordioak lortu dituztela autonomoen ordezkariekin negoziatu

Santiago Sainz indica que la moción se plantea de manera global porque autónomos hay en todos los territorios. El gobierno del PP va a aprobar la nueva ley de autónomos gracias al pacto con Ciudadanos y agradece a Andrade que haya concretado las mismas, ya que así él no tiene que hacerlo ahora. La moción recoge aquellas propuestas que el PP no ha admitido a Ciudadanos en su pacto sobre los autónomos. Explica las propuestas que plantea la moción y que han sido tratadas con asociaciones de autónomos de Bizkaia que las valoran positivamente.

Ibon Rodríguez indica que la situación que sufren los autónomos es seria y debe ser tratada con seriedad y no comparte la generalidad de la moción, la falta de concreción sobre lo que a cada administración solicita y ésta pueda hacer. Tal como se presenta la moción es pura propaganda y los autónomos piden seriedad y las propuestas tienen que ser efectivas y posibles.

Susana Andollo indica que GUK se va a abstener porque la moción es escasa, se trae por los pelos y además está referida a un colectivo que se juega mucho en su actividad. Cree que no se habla con los colectivos afectados que pueden aportar más para solucionar los problemas que los propios grupos políticos.

Eduardo Andrade indica que la Ley de Autónomos se tramita en el Congreso de los Diputados y allí se ha llegado a acuerdos tras negociar con los representantes de los autónomos. Si se

ostean. Getxora egokitutako autonomoen aldeko proposamenak aurkeztuz gero, PPk haien alde egingo du.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onartu, aldeko 1 boto jaso duelako (Ciudadanos), 20 boto kontra (EAJ, PP, EH bildu eta PSE-EE), eta 4 abstentzio (GUK).

Inazio Uriartek gobernu-taldearen kontrako botoa arrazoitu du, esanez Ciudadanosek erabiltzen duela EAEn duen kargu publiko bakarra bere hauteskunde-programa plazaratzeko horretarako eskudunak ez diren foroetan, eta gainera ordezkariak dituela halako gaiak eztabaidatu daitezkeen foroetan.

134.- CIUDADANOS UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDALERRIKO JAI-ESPARRUAK DESPOLITIZATZEA.

Santiago Sainzek ondorengo mozioa irakurri du:

Tokiko jaiak pozez betetako uneak dira edozein herritan, eta udaren hasierak gure geografia osoan ospatuko diren jai askoren hasiera dakar. Guztiok dakigunez, Getxo ez da salbuespena horri dagokionez; izan ere, udalerriko zenbait jaiek –esate baterako, Portu Zaharreko jaiek edo Algortakoek– Bizkaiko eta inguruko beste leku batzuetatik datorren jende-andana erakartzen dute.

Herri bateko jaien jatorria askotarikoa izan daiteke: erlijiosoa, data jakin bat

presentan proposatas ajustadas a Getxo a favor de los autónomos el PP va a apoyarlas.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK.

Inazio Uriarte justifica el voto en contra del equipo de gobierno porque Ciudadanos utiliza el único cargo público de la CAPV para plantear su programa electoral en foros además que no son competentes estando representado en los foros donde pueden debatirse estas cuestiones.

134.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/LA DESPOLITIZACIÓN DE LOS RECINTOS FESTIVOS DEL MUNICIPIO.

Santiago Sainz da lectura a la siguiente moción:

Las festividades locales son momento de júbilo para cualquier localidad, y la llegada del periodo estival marca el inicio de muchas de ellas a lo largo y ancho de toda la geografía. Como todos sabemos Getxo no es ninguna excepción, siendo algunas de ellas, tales como las del Puerto Viejo o las de Algorta un auténtico reclamo para gran cantidad de gente que se desplaza desde otros puntos de la geografía vizcaína y sus alrededores para disfrutar de nuestras fiestas.

El origen de las fiestas de un pueblo puede tener diversas causas: religiosas,

ospatzea, herri bateko zaindariaren jaia ospatzea, etab. hori bai, errealitateak erakutsi digu jaiek zerikusi gutxi dutela berez duten zentzuarekin, eta jai-esparruetan mezu politikoen presentzia etengabea da. Mezu horiek ez dute zerikusirik auzoan edo jaia egiten den herrian egon beharko lukeen jai-giroarekin.

Mezuok hainbat modutan ikusgarri egoten dira, batzuk begi-bistan, adibidez kalejiretan, paskinetan, pankartetan edo argazkietan, eta beste batzuk ez dira hain bistakoak, adibidez edalontzietan egoten direnak. Logikoa denez, mezu horiek jai-esparrua politizatu egiten dute eta egon beharko litzatekeen giroa kutsatu egiten da. Horrekin guztiarekin, pertsona batzuk integrazio-falta edo deserosotasuna sentitzen dute, eta ez lukete horrelakorik jasan beharko.

Udal-talde hau guztiz jakitun da Getxon hamaika ideologia politikoko jendea elkarrekin bizi dela, eta ideologia batzuk elkarrengandik oso urrun daude, udal honen osaerak islatzen duen bezala. Horregatik saiatzen da udal hau eremu politikotik ahalik eta urrunen dagoen jai-giroa lortzen, ikuspuntu politikoak kontuan hartu gabe.

Gure ustez, herri edo auzo bateko jaiak ondo pasatzeko dira, une batez denok ditugun arazoak eta zereginak ahazteko, baita gai politikoak alde batera uzteko ere. Gauza bakoitzak bere une eta lekua duela deritzogu, eta jaiak ez dira, hain zuzen ere, horiek jorrazteko unea, ezta lekua ere.

conmemoración de una fecha, celebrar el patrón de su localidad...ahora bien, a pesar de su origen la realidad nos ha demostrado que el desarrollo de las mismas normalmente no guarda ninguna relación con el mismo, siendo una constante la presencia de mensajes políticos en los recintos, que poco o nada tienen que ver con el ambiente festivo que ha de ser predominante en el barrio o pueblo donde estas se celebren.

La presencia de estos mensajes, presentes en multitud de formas algunas fácilmente visibles tales como kalegiras, pasquines, pancartas, fotos y otras no tanto como en vasos conlleva una lógica politización del recinto ferial enviando el ambiente que le debiera corresponder y logrando con ello una falta de integración o incomodidad en algunas personas que no debieran tener que soportar.

Este Grupo Municipal es plenamente consciente de que en Getxo cohabitan multitud de ideologías políticas distintas, algunas de ellas en las antípodas de otras, tal y como es fiel reflejo la misma composición de este Consistorio y por tanto trata de conseguir un ambiente festivo lo más libre posible de politización alguna, sean del signo político que sean.

Creemos que las fiestas de un pueblo o barrio son momentos de diversión, de olvidar por unos momentos las preocupaciones y quehaceres que todos y todas tenemos y dejar de lado los temas políticos, creemos que cada asunto tiene su momento y lugar y que las fiestas no es el que les corresponde.

Gainera, gure iritziz jai-giro on batek aukera bikaina eskaintzen du sozializatzeko, lagunak egiteko, eta guztiok integratu ahal izateko. Horregatik desegokitzat jotzen dugu mezu hauek egotea, hauen presentziak giro ona sortu baino jai-giro atsegina egoteko oztopoak jartzen dituelako.

Bestalde, gogoan izan behar ditugu merkatariak eta ostalariak, zalantzarik gabe jai-giro atsegina izan nahi baitute. Era berean, ezin dugu ahaztu Getxo leku turistiko gisa irudikatzen duen ideia sustatzeko aukera, ez baita inolako sekreturik hori bultzatu nahi dugula.

Hori guztia dela eta, udal-talde honek honako erabaki-proposamena aurkeztu nahi du:

ERABAKI-PROPOSAMENA:

LEHENENGOA.- Udalak Getxoko jai-batzordeei deialdia egitea –mezuen ideologia edozein dela ere, eskuin zein ezkerrekoak– mezu politikorik gabeko jai-esparruak lortzeko.

BIGARRENA.- Udaletxean jakiten bada aipatutako mezu horiek edozein formatan bide publikoan daudela, kendu egingo ditu.

Eduardo Andradek seinlatu du mozioa iazko uztailean Ciudadanosek aurkeztu zuenaren berdina dela. Kezkagarri iruditzen zaio Ciudadanosek, alderdi berria izanik, mezu politikoak mezu bortitzekin nahastea eta, zenbait kasutan,

Opinamos además que un buen ambiente festivo brinda una oportunidad excelente para socializar, para confraternizar y para que todos y todas nos integremos. Es por ello por lo que no vemos conveniente la presencia de estos mensajes que supondrían, lejos de crear un buen ambiente, trabas para un cordial clima festivo.

Por otra parte no podemos dejar de pensar en los comerciantes y hosteleros a los cuales sin lugar a dudas les interesa un buen ambiente festivo. Tampoco podemos obviar la oportunidad de potenciar la imagen de Getxo como destino turístico, imagen la cual no es ningún secreto que quiere ser impulsada.

Es por ello que este Grupo Municipal solicita la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERA.- Llamamiento del Ayuntamiento a las distintas comisiones de fiestas de Getxo con el fin de lograr unos recintos sin la presencia de mensajes políticos sean de la ideología que sean, tanto de derechas como de izquierdas.

SEGUNDA.- En el caso de que el Ayuntamiento constate la presencia de los citados mensajes en cualquier forma y en la vía pública se procederá a su retirada.

Eduardo Andrade indica que la moción es idéntica a la presentada por Ciudadanos en julio del año pasado. Le preocupa que Ciudadanos, un partido reciente, esté confundiendo mensajes políticos con mensajes violentos y en algunos casos de apología del

terrorismoaren apologia egiten duten mezuekin. Gogorazi du udalak 2010ean PPren eskariz testu bat gehitu zuela jaiak eta txosnak baimentzeko dekretuetan, eta horietan arau-hauste astuntzat jotzen zirela pertsonak mindu eta umiliatzen dituzten eta indarkeria sustatzen duten mezuak. Horren proba da Getxon araudia onetsita egon arren hura ez betetzea gobernu-taldearen interes ezagatik, eta animatu du Ciudadanoseko zinegotziari salaketak aurkeztera pertsonen duintasunaren kontrako kartelen inguruan. Amaitzeko, seinalatu du iaz mozioaren alde bozkatu zutela, baina aurten abstenitu egingo direla.

Enrique Pradak adierazi du iazko mozio bera denez, GUKek iazko iritzi bera mantentzen duela. Badira urteak jaiak normalizatzeko bidean aurreratzen ari direla, baina badirudi zenbaitek iraganari lotuta geratu nahi dutela. Azaldu du Getxon kolektiboak adierazten direla, eta tolerantziaz, errespetuz eta legeen esparruaren barruan egiten den bitartean, ez dutela inolako arazorik ikusten hainbat iritzi ezberdin adieraztean. Seinalatu du Getxoko jaiak onak direla, eta behar bezala egiten direla, eta ohartarazi du adierazpen-askatasuna murrizteari buruz.

Koldo Iturbek adierazi dio Eduardo Andraderi egoera ez dela berak deskribatu bezala. Pankarta iraingarririk badago, hura kendu egiten da. Gaur egungo jaiak ez dute zerikusirik orain dela hamabost urteko jaiekin. Santiago Sainzi erantzun dio iaz bezala egoera politikoa aldatu dela eta ez duela zerikusirik orain dela hainbat urtekoarekin, gizartea eboluzionatu

terrorismo. Recuerda que el ayuntamiento en el año 2010, a propuesta del PP incorporó un texto en los decretos de autorización de fiestas y de txoznas por el que se considera infracción grave los mensajes que ofenden y humillan a las personas e incitan a la violencia, etc. La prueba en Getxo es que aunque esté aprobada dicha normativa no se cumple por la desgana del equipo de gobierno y anima al concejal de Ciudadanos a que presente denuncias respecto a los carteles que atentan contra la dignidad de las personas. Finaliza indicando que el año pasado votaron a favor de la moción pero que este año se van a abstener.

Enrique Prada indica que como es la misma moción del año pasado la opinión de GUK se mantiene similar a la del pasado año. Se llevan años en el camino de la normalización en el desarrollo de las fiestas y parece que algunos quieren quedarse anclados en el pasado. Manifiesta que los colectivos se manifiestan en Getxo y mientras se realice con tolerancia, respeto y dentro del marco legal no ven ningún problema a las diferentes manifestaciones de opinión. Indica que las fiestas en Getxo son buenas y se desarrollan correctamente y alerta sobre la limitación de la libertad de expresión.

Koldo Iturbe indica a Eduardo Andrade que la situación es diferente a la que describe. Si hay alguna pancarta ofensiva se retira. Las fiestas actuales nada tienen que ver con las de hace quince años. A Santiago Sainz le contesta como el año pasado, la situación política ha cambiado y nada tiene que ver con lo que había hace años, la sociedad ha evolucionado y se

dela eta normaltzen ari dela. Pintaketa edo pankarta iraingarririk badago, hura kendu egiten da. Animatu du jai-batzordeekin egoteko, eta gonbidatu du berarekin joatera jai-esparruetara.

Nerea Gujarrubiak seinlatu du mozioan despolitizaziozat jotzen dena zentsura dela errealitatean. Beraren iritziz, dena da politika, eta ez dago despolitizatzerik. Politika alderdi politikoen jarduerak baino askoz gehiago da. Azken urteotan eskuina ari da despolitizazioa eskatzen, eta horren aurrean EH Bilduk defendatzen du bizitza politika dela, eta intimitatea ere politika dela. Politika batzuek honako alderdi hauek baldintzatzen dituzte: etxebizitza eskuratzea, pertsonen arteko harremanak, gizarte sexista eta patriarkal bat egotea, zerbitzuak eskuratzea, eta abar. Ciudadanosek proposatzen duen despolitizazioa sumisioa da. EH Bilduk eskatzen du herritarrek politikan parte har dezatela.

Eduardo Andradek adierazi du, adierazpen-askatasunari dagokionez, pankarta bat iraingarria izan daitekeela, bera irainduta sentitzen dela Guardia Zibilaren kontra urtero jartzen diren pankartekin, edo presoan argazkiak jartzearekin eta ez biktimen argazkiak. Onartzen du egoera ez dela duela hainbat urtekoa bezalakoa, baina oraindik ere badaudela kartel iraingarriak egun osoan, eta gauez kentzen direla baztuetan. Eskatzen du txosnak baimentzeko dekretuan ezarritakoa bete dadila, hori ez baita jaiak politizatzea.

Santiago Sainzek EH Bilduri eskertu dio defendatzea herritarrek politikan parte hartzea, eta Eduardo Andraderi eta Koldo Iturberi jaietan berari lagundu nahi izatea. Mozioa iazko bera

va normalizando. Si hay alguna pintada o pancarta ofensiva se retira. Le anima a que se relacione con las comisiones de fiestas y le invita a que le acompañe a los recintos festivos.

Nerea Gujarrubia indica que la moción plantea como despolitización lo que realmente es una censura. Estima que todo es política y no cabe la despolitización. Política es más que la actuación de los partidos políticos. En los últimos años es la derecha la que aboga por la despolitización y ante eso EH Bildu defiende que la vida es política y la intimidad también es política. Hay políticas que defienden el acceso a la vivienda, las relaciones entre personas, la existencia de una sociedad sexista y patriarcal, el acceso a los servicios, etc. La depolitización que plantea Ciudadanos es una sumisión. EH Bildu reclama la participación de la ciudadanía en la política.

Eduardo Andrade manifiesta que respecto a la libertad de expresión una pancarta puede ofender como a él le ofenden las que se ponen todos los años contra la Guardia Civil o las fotos de los presos y no las de las víctimas. Reconoce que no es la situación de hace años pero sigue habiendo carteles ofensivos que están todo el día y que a veces se retiran a la noche. Pide que se cumpla lo que indica el decreto de autorización de las txoznas y eso no es politizar las fiestas.

Santiago Sainz agradece a EH Bildu que defienda que la ciudadanía se involucre en política y a Eduardo Andrade y a Koldo Iturbe que le quieran acompañar en fiestas. La moción es básicamente la

da funtsean. Gogorarazi du ez dela behar den zehaztasunez betetzen dekretuan eta garbitasunari buruzko ordenantzan xedatutakoa. GUKek tolerantziaz adierazi duenari dagokionez, galdetu dio zer pentsatuko lukeen terrorismoaren biktima batek Getxora etorri eta presoan argazkiak eta halako pankartak aurkituko balitu. Beraren ustez deseroso sentituko litzateke, eta horixe ekiditea da kontua.

Koldo Iturbek adierazi du zenbait kartel eta mezurekin norbait irainduta sentitu daitekeela, baina delitu ez badira ezin direla kendu. Legezketasunaren printzipioa bete behar da.

José Luis Landak seinalatu du mozioak despolitizazioa proposatzen duela, eta haren ustez horren atzean zentsura dagoela. Adierazi du legez kanpokoa dena kendu behar dela, baina legezko dena ezin dela erreprimitu, adierazpen-askatasuna kaltetuko bailuke.

Nerea Guijarrubiak nabarmendu du jai-batzordeen balioa, eta haiek jai herrikoi, parekide eta euskaldunak antolatzeke egiten ari diren lanaren alde agertu da.

Santiago Sainzek berriro esan du badagoela betetzen ez den legezketasunaren printzipio bat, garbitasunari buruzko ordenantza hain zuzen ere, eta horretan xedatzen dela pankartak alde aurreko baimena behar dutela. Despolitizazioari dagokionez, alkateak erabilitako termino bat hartu du, hark 2007an eskatu baitzuen jaiak politizatuta ez egotea. Mozioak ardatza jarri nahi du garbitasunari buruzko ordenantza ez betetzean.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onetsi,

del año pasado. Recuerda que lo que se indica en el decreto y en la ordenanza de limpieza no se cumple con el rigor necesario. Respecto a las manifestaciones de GUK sobre la tolerancia le plantea qué opinaría una víctima del terrorismo que venga a Getxo y se encuentre con las fotos de los presos y pancartas similares. Cree que se sentiría incomodo y eso es lo que se trata de evitar.

Koldo Iturbe indica que hay carteles y mensajes que pueden ofender a alguien pero si no son delito no se pueden quitar. Hay que atender al principio de legalidad.

José Luis Landa indica que la moción plantea la despolitización y estima que eso encubre la censura. Indica que lo que no es legal hay que retirar pero lo que es legal no se puede reprimir ya que afectaría a la libertad de expresión.

Nerea Guijarrubia pone en valor la labor de las comisiones de fiestas y apoya el trabajo que vienen realizando para realizar unas fiestas populares paritarias y euskaldunes.

Santiago Sainz insiste en que existe un principio de legalidad que se incumple que es la ordenanza de limpieza que determina que las pancartas deben ser previamente autorizadas. Respecto a la despolitización recoge un término que se manifestó el Alcalde en el año 2007 cuando pedía unas fiestas no politizadas. La moción quiere poner el foco en el incumplimiento de la ordenanza de limpieza.

Sometida la moción a votación es

aldeko 1 boto jaso duelako (Ciudadanos), 19 boto kontra (EAJ, GUK, EH Bildu eta PSE-EE), eta 5 abstentzio (PP).

rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 19 votos en contra, PNV, GUK, EH Bildu, PSE-EE; 5 abstenciones, PP.

GALDE-ESKEAK

135.- CIUDADANOS EGINDAKO GALDERA, EKAINAREN 16KO DATAREKIN ETA 17507 SARRERA ERREGISTROAREKIN

Santiago Sainzek ondorengo galderak irakurri du:

Zerk eragin zuen barandak huts egitea eta hiru neskek erortzea?

Zer neurri zehatz hartuko ditu gobernu taldeak antzekorik inoiz gerta ez dadin udal eraikin batean?

Alkateak adierazi du deitoratzen duela istripua gertatu izana, eta Udaltzaren elkartasuna adierazi die ukitutakoei eta haien familiei. Gogorarazi du publikoki esan duela eta espresuki adierazi diela udaleko talde politiko guztiei zerbitzu teknikoak aztertzen ari direla zer gertatu zen, eta txostena amaituta dagoenean hura jakinaraziko dela.

Bigarren galderari dagokionez, beharrezko deritza istripuaren zergatiak jakiteari neurri zehatzak hartu ahal izateko, baina, hala ere, baranden egoera aztertzen ari dira.

Paula Amievak alkateari galdetu dio zergatik ez den jarri LGTB bandera balkoian.

Alkateak erantzun du balkoian hainbat

RUEGOS Y PREGUNTAS

135.- PREGUNTA FORMULADA POR CIUDADANOS CON REGISTRO DE ENTRADA DE FECHA 16 DE JUNIO DE 2017.

Santiago Sainz lee las siguientes preguntas:

¿Qué originó que la barandilla cediera y se precipitaran las tres niñas?

¿Qué medidas concretas va a tomar el equipo de gobierno para que no vuelva a repetirse algo similar en cualquier instalación municipal?

El Alcalde indica que lamenta el accidente ocurrido y ha transmitido la solidaridad de la corporación a los afectados y sus familias. Recuerda que públicamente ha dicho y expresamente ha indicado a todos los grupos políticos municipales que los servicios técnicos están analizando lo ocurrido y que cuando tengan el informe concluido se dará a conocer.

En relación a la segunda pregunta estima que es necesario conocer las razones del siniestro para tomar las medidas concretas pero que peso a ello se está comprobando la situación de las barandillas.

Paula Amieva pregunta al Alcalde porqué no se ha puesto en el balcón la bandera LGTB.

El Alcalde le responde que en el balcón

bandera eta sinbolo jartzen direla, baina horretarako erabaki bat egon behar duela, normalean Bozeramaileen Batzordean hartutako erabakia.

Paula Amievak alkateari eskatu dio Bozeramaileen Batzordea deitzeko, bandera jartzeaz eta horri buruzko adierazpen instituzional batez hitz egiteko.

Alkateak erantzun du udalak jadanik egin zuela LGTB kolektiboari buruzko adierazpen instituzional bat maiatzean, eta adierazpen guztiek badutela euren non eta noiz, horrek kendu gabe taldeek proposatzen dituzten gaiak jorratzea, baina gai bera behin eta berriro proposatzeak indargabetu dezakeela haren edukia.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko zortziak eta hamabi minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

se ponen diferentes banderas y símbolos pero siempre que exista un acuerdo al respecto, acuerdo alcanzado normalmente en la Junta de Portavoces.

Paula Amieva ruega al Alcalde que se convoque una Junta de Portavoces para tratar de la cuestión de la ubicación de la bandera y también de una declaración institucional al respecto.

El Alcalde responde que el ayuntamiento ya adoptó una declaración institucional sobre el colectivo LGTB el mes de mayo y que todas las declaraciones tienen su espacio y su tiempo sin perjuicio de poder abordarse las cuestiones que los grupos puedan plantear pero que plantear reiteradamente una cuestión puede desvirtuar el contenido de la misma.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las veinte horas y doce minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.